

Donostia, 2021eko uztailaren 16a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, GIPUZKOA PLAZAKO BELTXARGEN ONGIZATEA DELA ETA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN Gipuzkoa plazako urmaelean dauden beltxargen ongizateari buruz interpelazioa egin ondoren.

### JUSTIFIKAZIOA

Parkea Bizirik eta Eguzki talde ekologistek, joan den hilean, salatu zuten Gipuzkoa plazako urmaelean bizi den beltxarga emearekin jardunbide txar bat egiten ari zirela; izan ere, umeak txitatzen ari zen beltxarga, eta arrautzak kendu eta igeltsuzkoak jarri zizkioten.

Urmael horretan dauden hiru beltxargetatik bi bikote dira, eta bikote horretako emeak bost arrautza errun zituen apirilean. Ikusita espezie horren arrautzak eklosionatzeko behar den denbora baino gehiago igarotzen ari zela, kolektibo ekologistak arrautzak aztertzeraz joan ziren, eta, apirilaren amaieran, ikusi zuten beltxarga txitatzen ari zen arrautzak igeltsuzkoak zirela. Udal Gobernuak aldaketa horren erantzule dela aitortu du, eta adierazi du arrautza faltsuak uztailera arte txitatzen eduki behar zutela beltxarga, ugaltze garaian beste arrautzarik errun ez zezan.

Inkubazio naturalak 35-40 egun irauten du, eta beltxarga emea apiriletik ari da txitatzen, hau da, ia lau hilabetez arituko da alferrikako sufrimendua eragiten dion gehiegizko esfortzu bat egiten. Ekologistek duela hilabete zioten bezala, emea egunean behin ateratzen da habiatik, elikatzera, eta berehala itzultzen da, alferrikako inkubazioarekin jarraitzera: “Loka dago; bainua, freskatzeko eta inkubazioaren esfortzuak eragiten dion ‘sukarra’ arintzeko aprobetxatzen du. Gau eta egun txitatzen behar baino ia hiru aldiz denbora gehiago darama, eta gero eta argalago eta akituago dago. Muda atzeratzen ari zaio (urteroko lumajea berritzea), horretarako elikadura- eta osasun-ekarpen gehigarria behar duelarik”.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak justifikatu egin zuen arrautzak aldatu izana, haren esanetan, beltxargak jarritakoak bideragarriak ez zirela eta. Gero, ordea, beltxargak espazioa txiki batean daudela eta hor animalia gehiago ez direla kabitzen adierazi zuen. Gainera, esan zuen beltxarga, txitatzen ari denean, erasokor jartzen dela jendearekin. Horrez gain, adierazi zuen Aieten ere egiten dutela arrautzak ordezkatzeko jardunbide hori; beraz, badirudi ohiko jardunbidea dela.

Hala, animalia horiek beren habitat naturalera eramaterik ba ote den galdetu genuen, eta udal Gobernuak arbuia egin zuen urmaeletik ateratzeko aukera.

Funtsean, arazoa da animalia horiek soilik apaingarri gisa erabiltzen direla. Izan ere, helburu bakar batekin daude animalioek urmaelean: herritarrei edo bisitariei atsegina hartzeko eta gozatzeko elementu bat eskaintzea; eta ez gara ohartzen nola sufritzen duten beltxargek, beren bizi prozesu naturalak aske gauzatzerik ez dutelako.

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzako hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari bertan behera utzi ditzala animalien ongizatearen aurkako jardunbideak —hala nola Gipuzkoa plazako eta Aiete parkeko beltxargek jarritako arrautzen ordez arrautza artifizialak jartzea, ugal ez daitezen—, eta irtenbiderik onena bila dezala, animalien osasunari kalterik ez egiteko eta haien sufrimendua modu artifizialean luzatzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari hiriko animalien ongizatea bermatzeko eta har ditzala neurriak inguruneko biodibertsitatea eta hegaztien babesa hobetzeko.

Haizea Garay Gallastegi  
*Elkarrekin Donostiako zinegotzia*